

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 548/2023 Erabakia, irailaren 12koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan biohondakinen bilketa eta kudeaketa sustatzeko 2023 eta 2024rako dirulaguntza lerroaren deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 1eko 40/2023 Foru Dekretuaren bidez, onetsi dira Arabako Lurralde Historikoan biohondakinen bilketa eta kudeaketa sustatzeko dirulaguntza lerroaren oinarri arautzaileak, deialdi hau arautzen dutenak.

Hondakin mota horren inguruko helburuak lortzen laguntzen duten ekintzak babesteak interesa izaten jarraitzen duenez, proposatzen da 2023 eta 2024ko ekitaldietarako deialdia egitea, baldintza hauen pean:

Proposatutako zenbatekoa 260.000,00 euro da, eta 2023an onetsitako foru aurrekontuaren 2023ko eta 2024ko urterokoei egotziko zaie, honela banaturik:

- 2023ko urterokoa, guztira 130.000,00 euro:

- 40.000,00 euro, 60207. G/172601/46290602 “Dirulaguntzak, organikoa” aurrekontu partidaren kontura.

- 90.000,00 euro, 60207. G/172601/76290605 “Dirulaguntza organikoak. Inbertsioak” partidaren kontura.

- 2024ko urterokoa, guztira 130.000,00 euro:

- 40.000,00 euro, 60207. G/172601/46290602 “Dirulaguntzak, organikoa” aurrekontu partidaren kontura.

- 90.000,00 euro, 60207. G/172601/76290605 “Dirulaguntza organikoak. Inbertsioak” partidaren kontura.

Kontuan izanik dirulaguntzaren zati bat kanpoko laguntza teknikoak, sentsibilizazio kanpainak eta zerbitzu lagungarriak finantzatzeko izango dela, eta beste zati bat baliabide materialerako eta egokitze lanetarako, eskaerak jaso eta partida bakoitzari bere izaeraren arabera egoztekoa den zatia jakin ondoren, bidezko diren aurrekontu doikuntzak egingo dira.

- Dirulaguntza eskaerak oinarri arautzaileetan ezarritako prozeduraren arabera aurkeztu behar dira. Horretarako epea 30 egun izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

- Dirulaguntza eskaerei buruzko ebazpena oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera hartuko da.

- Deialdi honetan, dirulaguntza jaso ahal izango dute 2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 1era bitartean gauzatutako jardunek, honako ohar hauek kontuan hartuta:

a) Erakundeek beren ekintzak ekitaldi bakar batean (2023an edo 2024an) edo modu jarraituan bietan (2023-2024) antolatu eta gauzatu ahal izango dituzte, baina kontuan hartuta eskatzaile bakoitzak ekitaldi bakoitzean programatutakoaren arabera proposatuko dela dirulaguntza eta, era berean, ekitaldi bakoitzean gauzatutakoa ordainduko dela.

b) 2023ko abenduaren 31 baino lehenago gauzatu beharko dira eskatzaile bakoitzak 2023ko urterokoan aurreikusitako gastuak, eta 2024ko abenduaren 1a baino lehenago 2024ko urterokoari dagozkionak.

c) a) eta b) apartatuetan azaldutakoaren arabera, ez da epea luzatuko 2023ko ekitaldirako aurreikusita eta aurrekontuan jasota egon arren aurreikusitako epeetan gauzatu eta zuritu ez diren ekintzen kasuan, eta 2024ko ekitaldira ere ez dira luzatuko.

- 2023ko ordainketak egiteko eskatzen den dokumentazioa 2023ko abenduaren 31rako aurkeztu behar da, eta 2024ko ordainketak egiteko, 2024ko abenduaren 1erako.

- Erakundeek "Aurkeztu beharreko agiriak" izeneko 7. artikuluan oinarrituta aurkeztu behar dituzte eskaerak, eta argi eta garbi zehaztu behar dituzte deialdi honetako bi urteetako bakoitzari loturiko kontzeptuak eta zenbatekoak; izan ere, gauzatu beharreko kontzeptuak, haien zenbatekoa eta emandako dirulaguntza urteroko bakoitzari loturik egongo dira.

- Eskaera bakoitza 9. artikuluan xedatutakoaren arabera aztertu eta balioetsiko da, eta balioespen irizpideak eskaerari batera aplikatuko zaizkio, kontuan hartu gabe ekintzak zein urtetan proposatzen dituzten.

Dirulaguntza eskaerak bitarteko elektronikoen bidez bakarrik aurkeztu behar dira, deialdi honetan ezartzen den epearen barruan, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen eta horretarako egokitutako izapide espezifikoaren bidez.

Horrenbestez, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan biohondakinen bilketa eta kudeaketa sustatzeko dirulaguntza lerroaren 2023ko eta 2024ko urterokoei dagokien deialdia, guztira 260.000,00 euroko zenbatekoaz, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako aurrekontuko partidaka eta urteka honela banakatuta:

2023ko urterokoa: 40.000,00 euro 60207. G/172601/46290602 "Dirulaguntzak, organikoa" partidaren kontura eta 90.000,00 euro 60207. G/172601/76290605 "Dirulaguntzak, organikoa. Inbertsioak" partidaren kontura.

2024ko urterokoa: 40.000,00 euro 60207. G/172601/46290602 "Dirulaguntzak, organikoa" partidako konpromiso kredituaren kontura eta 90.000,00 euro 60207. G/172601/76290605 "Dirulaguntzak, organikoa. Inbertsioak" partidako konpromiso kredituaren kontura.

Deialdi hau arautzen duten oinarriak Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 1eko 40/2023 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren.

Bigarrena. Dirulaguntza eskaerak bitarteko elektronikoen bidez bakarrik aurkeztu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen egokitutako izapide espezifikoaren bitartez. Horretarako hilabete bateko epea egongo da, deialdi hau ALHAOn argitara ematen den egunaren hurrengotik aurrera.

Erakundeek oinarri arautzaileen I. eranskinean adierazten diren dokumentuekin aurkeztu behar dituzte eskaerak, eta argi eta garbi zehaztu behar dituzte deialdi honen bi urteetako bakoitzari loturiko kontzeptuak eta zenbatekoak; izan ere, gauzatu beharreko kontzeptuak, haien zenbatekoa eta emandako dirulaguntza urteroko bakoitzari loturik egongo dira.

Eskaerak jaso eta gero, beharrezkoak diren aurrekontu doikuntzak egingo dira, IV. kapituluko eta VII. kapituluko partidei egokiro egozteko.

Hirugarrena. Deialdi honetan, dirulaguntza jaso ahal izango dute 2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 1era bitartean gauzatutako jardunek, honako ohar hauek kontuan hartuta:

- Erakundeek beren ekintzak ekitaldi bakar batean (2023an edo 2024an) edo modu jarraituan bietan (2023-2024) antolatu eta gauzatu ahal izango dituzte, baina kontuan hartuta eskatzaile bakoitzak ekitaldi bakoitzean programatutakoaren arabera emango dela dirulaguntza eta, era berean, ekitaldi bakoitzean gauzatutakoa ordainduko dela.

- 2023ko abenduaren 31 baino lehenago gauzatu beharko dira eskatzaile bakoitzak 2023ko urterokoan aurreikusitako gastuak, eta 2024ko abenduaren 1a baino lehenago 2024ko urterokoari dagozkionak.

- Aurretik esandakoa oinarri hartuz, 2023ko ekitaldirako aurreikusita eta aurrekontuan sartuta egon arren, ezarritako epeetan gauzatu eta justifikatu ez diren ekintzei ez zaie luzatuko epea, eta ez dira 2024ko ekitaldira luzatuko ere.

2023ko ordainketak egiteko eskatzen den dokumentazioa 2023ko abenduaren 31rako aurkeztu behar da, eta 2024ko ordainketak egiteko, 2024ko abenduaren 1erako.

Laugarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuari ahalmena ematea erabaki hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena. Ebazpen honek amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka egin ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. eta 46. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko diputatua

AMAIA BARREDO MARTÍN

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA